

DIRU-ITURRIAK

Gure diru-iturri nagusia irakurmen liburuen, testu liburuen eta arroparen salmentatik aterako dugu. Gure ideia testu liburuak 20 euro inguruan, 3-5 eurotan irakurmen liburuak jartzea (prezinoa aldatuko da liburuen egoeraren arabera) eta arropak, prezio zehatzik ez duena, saltzea da.

Hilabetean behin plaza batean jarriko dugun saltokietatik izango litzateke gure etekin nagusia. Arropa eta liburuak Instagram nagusiki eta sortuko dugun web-gunearen bidez salduko genituzke. Web-gunean jarriko ditugun iragarkiei esker diru pixka bat irabaziko genuke.

Beste alde batetik, Bezeroak erakartzeko eta arropa lortzeko, bezeroek arropa poltsa bat ematearen truke, bi irakurmen liburu eta kamiseta bat 15 euroengatiko oferta emango dizkiegu.